



8. Funtsezko jarduerak

Gure proiektuaren arrakasta plataformaren produkzioan, arazoen konponketan eta kudeaketan oinarritzko jarduerak egitearen arabera da. Ekintza horiek gailu berritzaile bat sortzea, merkatuan sartzea eta epe luzera iraunkorra izatea bermatzen dute.

Ekoizpena: Sentsorearen eta aplikazioaren garapena

Sentsore adimendunaren ekoizpena eta hari lotutako aplikazioa dira gure negozio ereduaren muina. Prozesu horrek kalitatea, funtzionaltasuna eta araudi medikoak betetzea eskatzen du.

- **Sentsorearen diseinua:** gailu zehatza, diskretua eta erabiltzeko erosoak garatzea beharrezkoa da hortzak estutzean eragindako indarra detektatzeko gai dena.
- **Aplikazioaren garapena:** aplikazioak intuitiboa izan behar du, eta analisi zehatzak denbora errealean eman behar ditu, pazienteei eta profesionalen bruxismoaren patroiak eta hura eragiten duten faktoreak ulertzen lagunduz.
- **Gailuaren fabrikazioa:** diseinua baliozkotu ondoren, ekoizpen prozesua eskalagarria eta eraginkorra dela eta osasun sektoreko erregulazio estandarrak betetzen dituela bermatu behar dugu.

Erabiltzaile eta profesionalentzako problemen ebazpena

Gure proiektua arazo espezifiko bati aurre egiteko diseinatuta dago: bruxismoa goiz detektatzea eta pazienteen aho hortzetako osasuna eta osasun emozionala hobetzea. Horretarako, gure bezeroen beharrak asetzeko jarduerak egitea beharrezkoa da.

- **Beharrak identifikatzea:** sakon ulertu behar ditugu gure bi segmentu nagusien ezaugarriak eta kezak; bruxismoa duten pazienteak eta aho hortzetako osasuneko profesionalak.
- **Konponbide eraginkorrak eman:** sentsoreak eta aplikazioak berehalako emaitzak eta gomendio erabilgarriak eskaini behar dituzte, pazienteei estresa kudeatzen eta hortz kalteak prebenitzen lagunduz.
- **Laguntza teknikoak:** erabiltzaileek zailtasunak azkar argitu ahal izatea nahitaezkoa da, dela gailuaren erabilerari buruz, dela app-ak sortutako datuei buruz.

Plataformaren eta sare teknologikoaren kudeaketa

Sentsoreari lotutako aplikazioa balio proposamenari eusten dion sare teknologiko baten parte da. Horien kudeaketa eta mantentze lanak beharrezkoak dira eraginkortasuna bermatzeko.

- **Etengabeko eguneratzea:** softwarea eguneratuta mantendu behar da, funtzionalitate berriak gehituz eta erabiltzailearen esperientzia hobetuz, bere atzerakadak oinarrituta.
- **Datuen segurtasuna:** gailuak sortutako informazioak babestuta egon behar du, pribatutasun araudiak betez eta bezeroaren konfiantza bermatuz.



- **Algoritmoen optimizazioa:** datuak aztertzen dituzten algoritmoak etengabe findu behar dira, pazienteei zein profesionalei analisi zehatzagoak eta erabilgarriagoak eskaintzeko.

Barne jarduerak eta eskuordetu daitezkeenak

Lan batzuk barnean kudeatuko dira, eta beste batzuk, berriz, kanpoan baliabideak optimizatzeko.

- **Barnekoak:** gailuaren eta app-aren diseinua, marketina, bezeroekiko harremana ta ppublizitate kanpainak.
- **Delegagarriak:** sentsorearen ekoizpen masiboa, osagai estandarren fabrikazioa, logistika eta ikerketa eta garapena eta balidazio klinikoa.

Funtsezko jarduerak lehenestea

Gure balio proposamena sortzeko, lehentasun hauek zehaztu ditugu:

- Gailuaren diseinua eta baliozkotzea: sentsoreak eta aplikazioak kalitate estandar altuak betetzen dituztela bermatzea.
- Produkzio eskalagarria: eraginkortasunez fabrikatzea eskaerari erantzuteko.
- Merkaturatze estrategia: publikoa sentsibilizatzea eta gure gailua merkatuan kokatzea.
- Bezeroari laguntza: kalitatezko arreta eta etengabeko eguneratzeak eskaintzea.